

### **3.-KOLEKTOREETAKO ISURKETAK ARAUTZEN DITUEN ERREGELAMENDUA**

#### 3.1 HITZAURREA

Erregelamendu honek kolektore sarean egin beharreko isurketak arautzeko, saneamendu sistemaren funtzionamendua bermatzeko, mantentze eta esplotazio lanetan jardun duten langileen segurtasuna bermatzeko, araztegien funtzioa bermatzeko, Urdaibai itsasadarreko ur-ingurumen kalitatea zaintzeko eta gerorako erabiltzen diren arazketa-lokatzek kalitatea bermatzeko ere balioko du.

Erregelamenduak isurketak, bereziki industria-isurketak, kalitatearen arabera arautuko ditu, eraikitako araztegiek tratamendu funtzioak era onean egin ahal ditzaten, erakunde ahaldunek hartzaile inguruan ezarri edo etorkizunean ezarri ditzaketen baldintzak betetzen dituen efluente kalitatea lortuz..

Arau, teknologia eta sozio-ekonomia garapenak erregelamendu hau etengabe aldatzen den errealitateari egokitzeko beharra markatuko du. Pixkanaka-pixkanaka gero eta ingurumen eskakizun handiagoak lortu beharko dira.

Edozein kasutan, xedatutako helburuak erabat lortzeko inplikaturako instituzio guztien arteko elkarlana ezinbestekoa izango da: Herri administrazioa, industria enpresak, dendariak, merkatariak eta abar.

Araudi honek ondoko aspektuak azpimarratzen ditu:

##### 3.1.1 Estolda sare publikoa erabiltzeko derrigortasuna

Ohiko egoeran erabiltzaile orok hondakin-urak estolda sare publikoan isurtzen behar ditu. Behinik behin eta salbuespen gisa ibilgu publikoan isuri ahal izango da indarrean dagoen lege xedapenak betez.

Nahiz eta alde zuzenik tratatu, hainbat produktu ezin dira sartu kolektore sarean. Horietarako tratamendua bereziak aurreikusten dira produktu horiek instalazio zentralizatuen bidez tratatu ahal izateko.

##### 3.1.2. Aldi berean aplikatzeko beharra

Erregelamendua eskualde osoko erabiltzaileei aplikatuko zaie Saneamendu Plan Integralaren instalazio edo obren garapena kontuan hartu gabe.

Horrela, Saneamendu Plan Integrala bere osotasunean lantzen da, eta era berean, plana garatzen den heinean, kolektore sarean egiten diren isurketen kalitatea hobetzen da.

##### 3.1.3. Putzu septikoak pixkanaka-pixkanaka kentzeko beharra

Tratamendu mota hau etxez-etxeko hondakin uren oinarritzko tratamendua izanik ez dator bat araztegiak dituen Saneamendu Sistema Orokor baten funtzionamenduarekin. Beraz, pixkanaka-pixkanaka eta saneamendu sare nagusiak eskualdean eta udalerrietan zabaltzen diren heinean, putzuak kentzea aurreikusten da. Hori dela eta, Lurralde Ekintza Plan hau onartu eta gehienez hamar urteko epean putzu septikoak kentzeko derrigortasuna xedatzen da.

Halaber, Lurralde Ekintza Plan hau onartu eta gehienez hamar urteko epean, inolako arazte prozesurik gabeko isurketa zuzenak tratatzeko kolektore nagusiekin lotu edo sistema bereziak jarri beharko dira ere.

#### 3.1.4. Erabiltzaileen sailkapena

Isurketa bolumenaren arabera eta isurketaren kutsadura-zama kontuan hartuz, lau erabiltzaile mota zehazten dira. A, B, C, eta D.

Halaber, Erregelamenduak erabiltzaile gisa ondoko hauek aipatzen ditu ere: udal zabortegeiak zein baimendutako industria zabortegeiak, hondakin ur kutsatuak isur ditzaketen itsasontzi zatikatze instalazioak, eta baita ere ur kutsatuak zeharka ekoitz ditzaketen biltegiak.

#### 3.1.5 Industria batzuentzako autokontrol sistema.

Nahi izanez gero eta behar den azpiegitura teknikoa edukiz gero, erabiltzaileak bere isurketa kontrolatzeko aukera izango du adostutako baldintza batzuk betez.

#### 3.1.6 Larrialdi-egoerak

Erregelamenduak istripuz edo hanka-sartzez eragindako isurketa arriskutsuen ondorengo larrialdi-egoerak xedatzen ditu eta Busturialdeko Ur Partzuergoak horrelako kasuetan, egin beharreko erabiltzaileen larrialdietako planekin koordinatuz, zer egin behar den jakiteko protokoloa egiteko konpromisoa hartzen du.

#### 3.1.7 Koordinazio beharra

Hondakin ura, sortzen den lekutik azken isurketaraino unitate fisiko bakar bat da. Hots; etxeetan edo industrietan sortu eta sare pribatutik, udal estolda saretik, sare nagusietatik, araztegietatik igaro ondoren azken isurketaraino osotasunean tratatu behar da eta beraz tratatze irizpide bakar bat arautzea eta eskuduntza duten udalak (estolda sareak) eta Partzuergoaren artean (Sare nagusiak eta Araztegiak) elkarlana ezinbestekoa da.

#### 3.1.8 Ekonomia zamak

Nazioarte mailan onartu "kutsatuz gero ordaindu eta gero eta gehiago kutsatuz gehiago ordaindu" printzipioa jarraituz, eta Saneamendu Orokorra Sistema martxa jartzeak dakartzan ekonomia zamak ahalik eta hoberen banatzeko asmoz, Busturialdeko Ur Partzuergoak etorkizunean isurketa kanona ezarri nahi du. Erregelamendu honek beraz isurketa eta arazketa kanonen oinarriak bideratu beharko ditu.

### 3.2 XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

#### **I.artikulua.Xedea**

Erregelamendu honen xedea bere aplikazio eremuko hondakin urak Estolda Sarea Publikoan isurtzeko baldintzak arautzea da. Honelako helburuak bete nahi ditu:

- Aipatu sarea eta bere instalazio osagarri guztiak zaintzea eta beraien funtzionamendu eta egoera bermatzea.

- Esplotazio eta mantentze lanetan diharduten langileen segurtasuna bermatzea.
- Hondakin uren arazte prozesuak babestea.
- Efuente eta/edo ur ingurune hartzailearentzat ezarritako kalitate helburuak lortzea osasun publikoa eta inguruko balio ekologikoa babestuz.
- Arazketa lokatzentzat aurreikusitako erabileraren arabera ezarritako kalitate maila lortzea.

## **II. artikulua. Aplikazio eremua**

Erregelamendu hau gaur egun Busturialdeko Ur Partzuergoa osatzen duten udalerrietan indarrean egongo da. Etorkizunean, xedatutako prozedura erabiliz, Saneamendu sistemaren esparruan sar daitezkeen beste udalerrietan ere aplikatuko da .

## **III. ARTIKULUA. DEFINIZIOAK**

Erregelamendu honen ondorioetarako, aplikazio eta interpretaziorako ondoko zehaztapenak egiten dira:

A) Estolda Sare Publikoa.

Erregelamendu honen aplikazio esparru geografikoan sortzen diren hondakin urak biltzeko eta bideratzeko egiten diren izaera publikoko instalazio zein lan multzoa da.

Ondoko osagaiak ditu:

- Tokiko sareak edo Udal estolda sareak: Udalerri oso batean edo udalerri alde batean, hondakin urak nahiz euri urak biltzeko eta sare nagusira edo araztegia eroateko ubide, estolda eta beste laguntza elementuaz osatutako sareak.
- Sare nagusiak edo Oinarrizko sareak: Tokiko sare edo Udal estolda sareetako erabiltzaileen hondakin urak biltzeko kolektoreek, hodi-biltzaileek eta laguntza elementuek osatzen duten sarea. Aparteko kasu batzuetan ere, sare pribatuen erabiltzaileen hondakin urak bildu eta araztegia eraman ditzake.

B) Estolda sare pribatua.

Hainbat etxebizitza edo jardueraren hondakin urak bildu eta araztegia zein Estolda Sare Publikora eramateko osatzen den jabari publikoko instalazioa.

C) Araztegia

Tokiko saretik, Sare Nagusitik edo zuzenean erabiltzaileen saretik datozen hondakin urak arazteko erabiltzen den azpiegitura, mekanismo eta instalazio bilduma.

D) Aldez aurretiko tratamenduko planta.

Industria edo merkataritza jarduera baten -edo batzuen- hondakin urak tratatzeko martxan jartzen den azpiegitura, mekanismo eta instalazio bilduma. Ur horiek bertan tratatuz gero erregelamendu honek xedatzen dituen baldintzak beteko lituzke eta estolda sare publikoan edo araztegian onartuak izango liratekeen.

E) Isurketa bereziak egiteko planta zentralizatua.

Aldez aurretik tratatu arren, estolda sare publikoan edo araztegian, sartu ezin diren hondakin urak tratatzeko, martxan jartzen den izaera publiko zein pribatuko azpiegitura, mekanismo eta instalazio bilduma.

F) Erabiltzailea

Hondakin urak sortarazten dituen edozein etxebizitza zein merkataritza edo industria jardueraren titularra, pertsona fisikoa zein juridikoa izanik. Ondoko erabiltzaile mota dugu:

- A motakoa: Etxebizitza jardueran baino ez du erabiltzen ura. Etxebizitza batek 1000 m<sup>3</sup> ur urteko baino gutxiago erabiltzen du eta ez du inolako merkataritza edo industria jarduerarik egiten.

- B motakoa. urteko 1000 m<sup>3</sup> ur baino gehiago erabiltzen duten etxebizitzak eta 200 biztanleen moduko kutsadura zama baino gutxiagoa duten merkataritza nahiz industria jarduerak.

- C motakoa. Erregelamendu honen 10. artikulua xedatzen dituen kopuruak jarraituz, ura erabiliz 200 eta 5000 biztanle bitarteko kutsadura zama sortarazten duen edozein merkataritza nahiz industria jarduerak.

Eta baita ere aurreko paragrafoan aipatu baldintzak bete ez arren, ekoizpen prozesuen ondorioz, kolektoreetan edo Saneamendu Sistema Integralean kalteak eragin ditzaketen isurketak dutenak, edo isurketan metal astunak nahiz arazte prozesuan kalterik eragin dezaketen beste elementu batzuk dituztenak; besteak beste, inhibitzaileak.

- D motakoa. Erregelamendu honen 10. artikulua xedatzen dituen kopuruak jarraituz, ura erabiliz 5000 biztanleen moduko kutsadura zama baino gehiago sortarazten duen edozein merkataritza nahiz industria jarduerak.

Erabiltzaile batek, erabiltzaile mota batetik beste batera aldatuz gero, erregelamendu honen arabera erabiltzaile mota berriari dagozkion beharrak bete beharko ditu.

Halaber, erregelamendu honen ondorioetarako industria jardueratzat joko dira ondoren aipatuko diren guztiak, eta beraz bolumena eta kutsadura zamaren arabera erabiltzaile kategoria batean edo bestean sartuko dira, jarduera eta lizentzia fiskalaren arabera egoki dagozkien gainontzeko guztiekin batera:

- Udal zabortegeak eta industria hondakin solidoen zabortegeak.
- Itsasontzi zatitzeko instalazioen kasuan.
- Biltegiak eta kaiko zamalanak.
- Itsasontziko soto, saia eta kroskoaren garbitze eta pintatze lanen kasuan.
- Industria edo ekoizpen jardueratzat jotzen ez den beste edozein jarduera publiko zein pribatua, kutsa dezakeen edozein isurketa egiten duenenean.

#### G) Kontrol instalazioa

Estolda sare publikoan sartu baino lehen eta gainontzeko erabiltzaileen isurketekin nahastu baino lehen erabiltzailearen baten isurketa neurtzeko instalazioa eta tokia.

### 3.3 ESTOLDA SARE PUBLIKOAREN ERABILPENARI BURUZKOA

#### **IV. ARTIKULUA. ESTOLDA SARE PUBLIKOAREN ERABILPENA**

Estolda Sare publikotik 200 metro baino gutxiagora dagoen A eta B erabiltzaile orok Estolda Sare Publikoa erabili behar du derrigorrez. Erabiltzaileak bere hondakin urak Estolda Sarea Publikoan isurtzeko egin beharreko lanak burutu, eta hartu beharreko neurriak aurreikusiko ditu.

Orokorrean hondakin uren isurketa Tokiko estolda sarean burutuko da aparteko kasu batzuetan sare nagusian edo araztegian egin badaiteke ere. Kasu berezi hauek guztiak C eta D motako erabiltzaileak izan beharko dira eta edozein kasutan ere, Busturialdeko Ur Partzuergoak onartu beharko ditu ondoko irizpideak jarraituz:

- Isurketaren osagaiak.
- Udal sareko gaitasun hidraulikoa kolokan ezarri dezakeen isurketa bolumena.
- Hurbilen dagoen udal saretik urrunegi egotea.
- Egokiak izan daitezkeen bestelako zioak.

C eta D motako erabiltzaile guztiek eta Estolda Sare publikotik 200 metro baino gehiagora dauden A eta B motako erabiltzaileek ondoko aukerak dituzte:

- Estolda Sare Publikoa erabiltzea: Erregelamendu honek xedatzen duena betez eta behar diren instalazioak zein lanak beraien poltsikotik ordainduz isurketa baimena lortuko zuten.
- Estolda Sare Publikotik kanpo zuzenean isurtzea: Kasuz kasu eskuduntza duen administrazioaren isurketa baimena lortuz eta Erregelamendu honen IX artikulua zein berarekin bat datozen gainontzekoek xedatzen duten isurketa dispensa lortuz.

## **V.ARTIKULUA. ESTOLDA SAREAREN KONTSERBAZIOA**

Estolda sare publikoaren kontserbazioa eta mantentze lanak Busturialdeko Ur Partzuergo eta bertan parte hartzen duten udalen esku daude.

Estolda Sare pribatuaren kontserbazioa eta mantentze lanak, hondakin urak isurtzeko sare pribatu hori erabiltzen duten pertsonen esku daude. Pertsona fisiko edo juridiko batek baino gehiagok sarea erabiliko balu, sare pribatu horrek era onean funtziona dezan egin beharreko kontserbazioa eta mantentze lanak denon artean egin beharko lituzkete. Erabiltzaile guztiak erantzule solidarioak dira Partzuergoaren aurrean eta honek edozein erabiltzaile beraien guztien betebeharrak osoa betetzeko eskatu ahal dio, errekerituak gainontzeko erantzuleei dagokien aldea jasanarazteko eskubidea kaltetu gabe.

## **VI. ARTIKULUA ESTOLDA SARE PUBLIKOAREN UR-HARTZEAK KONTROL INSTALAZIOA**

Estolda sare pribatuek hondakin urak eta euri urak banandu behar dituzte estolda sare publikoan edo araztegian sartu baino lehenago. Honen bidez, eta Behin behineko xedapenetan esaten dena kaltetu gabe, ur batzuk eta besteak identifikatu, ikuskatu eta ikertu ahal izango dira.

Sare pribatu batean erabiltzaile asko isurtzen duten kasuetan, sarea egiteko orduan B, C eta D erabiltzaile motako isurketak bestekoekin nahastu baino lehenago, banan-banan identifikatu, ikuskatu eta ikertu ahal izan beharko dela kontuan hartu beharko da.

Estolda sare pribatua eta Tokiko Estolda Sarearen arteko lotura gunea Partzuergoaren arau orokorrak jarraituz udal bakoitzak zehazten dituen baldintzetan burutuko da.

Sare Nagusian edo araztegiatan egin beharreko loturen kasuetan Busturialdeko Ur Partzuergoak, isurketa azterturik eta afektatutako sare edo araztegiaren ezaugarriak ikusirik, egokia den baimena eman eta lotura egiteko baldintzak zehaztuko ditu ere.

Busturialdeko Ur Partzuergoak edo udalaren batek sare pribatu eta sare publikoaren arteko lotura egiteko lanak beregain har ditzake ondoko kasuetan:

- Lanak ondo eta era onean burutu direla bermatzeko behar dela uste denean.
- Administrazio zioengatik egokitzen joz gero.

Edozein kasutan ere kostea erabiltzailearen karguz izango da.

C eta D motako erabiltzaile guztiek sare pribatuaren barruan eta Estolda Sare Publikoarekin lotu baino lehenago isurketa kontrol-instalazioa ezarri beharko dute. Instalazio horrek ondoko elementuak izan beharko ditu:

### **a) ERREGISTRO PUTZUA**

Sarrera errazeko putzua, oztopo gabekoa, eta Estolda Sare Publikoaren konexioaren aurretik. Erroldatze, identifikazio eta onartze prozesua burutzeko erabiltzaileak putzu eta laguntza-elementu guztien planoak igorri behar dizkie Busturialdeko Ur Partzuergoari eta udalari..

### **b) KONTROL ELEMENTUAK**

Putzu bakoitzean hainbat elementu ezartzeko aukera egon behar da, besteak beste noizbehinka edo etengabe laginak erraz hartzekoak, ur ibilguak neurtzekoak neurgailu totalizatzaile erregistroduna, lagin automatikoak edo bestelako kontrol tresnak.

Ahal izanez gero erabiltzaile baten isurketa kontrol instalazio bakar batetik igaroko da estolda sare publikoan sartu baino lehenago. Hala ere, aparteko kasuetan, hots, isurketa batzea edo kontzentratzea zaila izaten den kasuetan bi kontrol instalazio edo gehiago ezarri daiteke.

## **VII. ARTIKULUA. DEBEKUPEKO ETA MUGAPEKO ISURKETA.**

### **7.1 Debekuak**

Ondoren aipatzen dena ezin da Estolda Sare Publikoan zuzenean isuri.

a) Ondoren aipatzen diren ondorioak eragin ditzakeen edozer:

- Nahasketa sukoiak edo leherkorrak sortarazi dezaketen substantziak.
- Instalazioen materialengan korrosioa eragin dezaketenak.
- Mantentze lanak eragotzi edo Ubidea zein ur emaria oztopa edo traba dezaken edozer..
- Ingurumenean baldintza toxiko, arriskutsu nahiz kaltegarria sortarazi dezakeen edozer, instalazioen funtzionamendu kaltetuz edo ikuskaritza, zaintza edo mantentze langileen sarrera oztopatuz.

- Araztegien prozesu zein eragiketak aztoratu ditzakeen edozer, diseinuan aurreikusitako tratamendu maila oztopatuz.
- b) Ondoko produktuak, isuritako kantitateak direla eta, goian aipatu efektuak sor ditzaketenean::
- Gasolina, bentzenoa, nafta, fuel-olioa, petrolioa, olio lurrunkorrek, Toluenoa, Xilenoa, nahiz beste edozein solido, likido, edo gas sukoi zein leherkorra.
  - Kaltzioko Karburo, Bromatoa, Kloratoak, Hidruroak, perkloratoak, peroxidoak eta izaera ez-organikoa duen beste edozein solido, likido, edo gas sukoi zein leherkorra.
  - Eztanda motorrek eragindako gasak eta airearekin nahastean leher, piztu, edo kutsa dezakeen beste edozein substantzia. Hau kontrolatzeko Estolda Sare Publikoko konexio puntuan lehertze neurri-gailuak hartzen diren datuak, lehertze-gaitasun mailarik baxuenaren %10a baino txikiagoak izan behar dira.
  - Solido, likido zein gas toxiko edo pozoitsuak, huts edo garbiak zein beste hondakin batzuekin nahastuta. Sareko langileentzat edo Osasun Publikoarentzat kalteren bat erakarri dezaketena, alegia.
  - Errautsak, kedarrak, hondarrak, lumak, plastikoak, egurra, odola, satsa, animalia gorpuzkiak, erraiak, ileak edo kontserbazio eta mantentze lanak eragotzi ditzakeen beste edozer.
  - Disolbatzaile organikoak, pinturak eta koloragarriak proportzio txikienean ere.
  - Olio edo koipe mineralak, zein landare eta animalia olio eta koipeak.
  - Araztegiak aztoratu dezaketen farmazia produktuen hondakinak, Farmazia industriatik etorriak edo osasun zentro batetik etorriak ere.
  - Etxebizitza zein industria hondakinak birrintzeko makina batetik ateratako solidoak.
  - Indarrean dagoen produktu toxiko eta arriskutsuei buruzko legedian aipatzen diren produktu guztiak..
  - Debekua hauek indarrean daude 7.2 atalak produktu batzuei hondakin uren gainean xedatzen dizkien kontzentrazio mugak kaltetu gabe.
- c) Ondoko isurketak:
- Planta berezi batean, edo planta zentralizatuan tratatu behar diren industria hondakin likido-kontzentratu eta botatzekoak.
  - Azalak tratatzeko erabili bainu-substantzien hondakin kontzentratuak
  - Estolda Sare Publikoan edo araztegien egon daitekeen tenperaturaren arabera solido bihurtzeko daitezkeen isurketa likidoak. Temperatura muga batzuetan solido edo pasta bihurtzeko daitezkeen isurketa likidoak, alegia.
  - Erreaktiboen, erregaiak eta lehengaiak biltzeko ontzien garbiketaren ondorengo noizbehinkako isurketak. Garbiketaren urak ezin dira bideratu Estolda Sare Publikora.
  - Itsasotik edo zona itsaso-lehortarrean hartutako ur gaziaren isurketa.
- d) Diluzio-ura
- Larritasun edo arrisku kasuetan izan ezik isurketan ezin da diluzio ura erabili.

## **7.2 Mugak**

Ezarririk mugen xedeak ondoko hauek dira:

- Estolda Sare Publikoaren hondamen fisikoari aurre egitea.
- Arazketa prozesuak babestea eta Araztegitik irteten den azken efluentearen kalitatea bermatzea.
- Saneamendu sistemak sortu efluentetik ingurumen fisikoa babestea ala natura zaintzea.
- Arazte lokatzei emango zaien erabilera kontuan hartuz, arazte lokatze gutxieneko kalitatea lortzea..

<b>PARAMETROA</b>	<b>UNITATEAK</b>	<b>ISURKETA MUGA</b>
Ph	Unitateak	6-10
Temperatura (°C)	°C	40
Kolorea		1/40
Detergenteak	mg/l	6
Animali zein landare olioak eta koipeak	mg/l	100
Olio mineralak	mg/l	10
Solido esekia	mg/l	500
Oxigeno eskari kimikoa (DQO)	mg/l	1.500
Fosforo guztira (P <sub>t</sub> )	mg/l	50
Nitrogeno nítriko	mg/l	20
Nitrógeno amoniakal	mg/l	50
Nitrogeno Guztira Kjeldhal (NTK)	mg/l	50
Kloruroak	mg/l	*
Sulfuroak	mg/l	2
Sulfatoak	mg/l	500
Fenolak guztira	mg/l	50
Zianuroak guztira	mg/l	5
Fluoruroak	mg/l	10
Aluminioa	mg/l	20
Boroa	mg/l	10
Barioa	mg/l	20
Burdina	mg/l	50
Manganesoa	mg/l	5
Zink	mg/l	2
Beruna	mg/l	1
Kromo Hexabalentea	mg/l	1
Kromo guztira	mg/l	3
Kobrea	mg/l	1
Kadmioa	mg/l	0,1
Nikela	mg/l	1
Selenioa	mg/l	0,1
Eztainua	mg/l	5
Zilarra	mg/l	1
Artsenikoa	mg/l	0,1
Merkurioa	mg/l	0,1

\* Kloruroen isurketa-muga eta eguneko kloruro-karga guztira kontserba-enpresa bakoitzak isur dezakeena, enpresa bakoitzaren Isurketa Baimenean ezartzen da. Enpresa bakoitzaren kloruroen isurketa-muga lortzen da enpresa bakoitzak sortutako eguneko batzbesteko kloruro-kontzentrazioa bezala, enpresaren jarduera gehieneko denboraldian (ulertu behar da jarduera gehieneko denboraldia, eguneko isurketa totalen kloruroen edukierari dagokionez).

Gauzak arestian aipatu legez dira, baldin eta diluzioa, kontserberen efluente guztien kloruroena etxebizitzetako hondakin-uretan bada, kloruro-kontzentrazioak HUAren sarreran 2.000 mg/l balioa ez gainditzeko beste.

Behar izanez gero eta Saneamendu sistemaren kudeaketa zio bereziak direla eta, (adibidez, kutsatzaile zehatz batzuen balantze orokorrak, lortutako diluzio mailak, lortu beharreko kalitate helburuak) aparteko kasu batzuetan, isurketa baimenean erregelamendu honetan agertzen diren mugak alda daitezke ere.

Busturialdeko Ur Partzuergoak zio horiek aztertu eta egokia den ebazpena hartu beharko du, eta dagokion udalari jakinaraziko dio.



## **VIII. ARTIKULUA. ALDEZ AURRETIKO TRATATZE PROZESUA**

Erregelamendu honek Estolda Sare publikoan isurtzeko xedatzen dituen gutxieneko baldintzak betetzen ez duen isurketa aldez aurretik tratatu beharko da. Erabiltzaileak beraz, bere isurketa tratatuko du Estolda Sare Publikoan sartu aurretik behar izanez gero ezarritako gutxieneko baldintzak bete arte.

Hondakin ura hauek aldez aurretik tratatzeko behar diren instalazioak Estolda Sare Pribatuaren elementuak dira. Isurketa baimen-eskarian argitasunez zehaztuko elementu horiek argitasunez azalduko dira dagokien den proiektua, ikerketa eta beraien eraginkortasuna justifikatzen dituzten kalkuluekin batera.

Hainbat erabiltzailek beraien isurketa, denek batera, aldez aurretik tratatu nahi izanez gero, isurketa guztien nahasketa isurtzeko baimena lortu beharko da, eta bertan isurketa horretan parte hartzen duten erabiltzaile guztiak adierazi beharko dira. Isurketa baldintzak betetzeko erantzukizuna erabiltzaileen Komunitatearena izango da. Halaber, komunitate kide bakoitza erantzule solidarioa izango da ere.

Edozein kasutan ere, isurtzeko baimena aldez aurretik egin beharreko tratamenduaren eraginkortasunaren menpe geratuko da. Aurreikusitako emaitzak lortu ezean isurtzeko baimena balio gabe geratuko da eta hondakin ur horiek ezin izango dira sartu Estolda Sare Publikoan.

## **IX. ARTIKULUA. HONDAKIN URAK DESAGERTARAZTEKO BESTELAKO PROZESUAK**

Hondakin urak aldez aurretik tratatu arren Estolda Sare Publikoan isurtzeko Erregelamendu honek xedatzen dituen baldintzak bete ezean interesatuak hondakin ur horiek sortarazten duen jarduera bertan behera utzi beharko du. Bestela, Estolda Sare Publikoan edo araztegian sartu ezin diren hondakin ur horiek planta zentralizatu batean edo beste mota bateko planta berezi edo biltegi batean sartzeko baliabideak ezarri beharko ditu behar diren instalazioak eta obrak eginez. Planta berezi hauek isurketari konponbide egokia eskaini beharko diote indarrean dagoen legedia betez.

Efektu hauetarako interesatuak isurketa-dispensatza lortzeko eskaria aurkeztu beharko du. Eskari honekin batera Estolda Sare Publikoan isurtzeko ezintasuna azaltzen duen txostena, eta instalazioen proiektua, administrazio ahaldunak instalazio berezirik eskatzekotan..

Interesatuak aldika eta Estolda Sare Publikoan Isurtzeko dispensatza lortzean xedatuko diren epeetan isurketa desagerrarazten ari dela justifikatu beharko du.

## **X. ARTIKULUA. LARRITASUN EDO PREMIAZKO EGOERAK**

Istripu edo hanka sartze baten ondorioz isuri ezin den zerbait estolda sarean sartzen denean larritasun edo premiazko egoera baten aurrean egongo gara. Kasu hauetan eta sor zitezkeen kalteak saihesteko asmoz erabiltzaileak egoera berehala jakinaraziko dio Busturialdeko Ur Partzuergoari eta honek dagokion udalari. Halaber, erabiltzaileak, larritasun edo premiazko egoera sortu ahala bere eskura dituen neurri eta baliabideak martxan jarriko ditu kalteak ahal duen neurrian gutxitzeko.

Busturialdeko Ur Partzuergoak larritasun edo premiazko egoera hauetan egin beharrekoa zehaztuko du. Egin behar hori C eta D taldeetako erabiltzaileek eduki behar duten larritasun prozedurekin koordinatuta egongo da.

Atal honek aipatzen dituen istripuen ondorioz sortutako egoerak konpontzeko egin beharreko gastuak (garbiketa, berritze lanak, matxura konponketak eta gainontzeko guztiak) kaltea eragin duen erabiltzailearen karguz izango dira. Erabiltzaile horrek gastu guztiak ordainduko ditu eskatu ahal izango zaizkion beste erantzukizun kaltetu gabe. Kalteak Udal estolda sarean gertatzen direnean Udalak kalteen balorazio espedientea burutuko du. Sare Nagusietan edo araztegietan izatekotan ordea, Busturialdeko Ur Partzuergoak burutuko du espedientea.

### 3.4 IKUSKARITZA ETA ZAINTZA LANAK

## **XI. ARTIKULUA . IKUSKARITZA ETA ZAINTZA**

Busturialdeko Ur Partzuergoak oinarrizko sarean isurtzen dena ikuskatu eta zainduko du eta Udalek, berriz, Udal estolda sarean isurtzen dena ikuskatu eta zainduko du. Hala ere ikuskaritza eta zaintza lan hauek batauk zein besteak bestearen esku utzi ditzake.

### **11.1 Sartzea**

Ikuskaritza eta zaintza lanak behar den moduan burutu ahal izateko langileak hondakin uren isurketarekin zerikusia duten edozein erabiltzailearen instalazioetan sartzeko baimena izango du, behar bezala identifikaturik egonez gero. Hala ere, Instalazio horietan sartzeko indarrean egon zitezkeen lege xedapenak bete beharko liratekeen

### **11.2 Funtzioak**

Ikuskaritza eta zaintza lanetan ondoko eginkizunak ditugu:

- Laginak hartzea. Isurketa osoaren laginak, zein isurketa osatzen duten lekuz leku eta kasuz kasuko isurketak banan-banan hartuko dira ere. Halaber, eurien uren laginak hartu beharko dira ere, ur hondakinekin batera bideratu ez arren.
- Emariak neurtzea. Isurketa osoaren emaria, zein isurketa osatzen duten lekuz leku eta kasuz kasuko isurketaren emaria banan-banan ere.
- Prozesuetan sartzen den ur bolumena neurtzea.
- Erabiltzailearekin batera ur-balantzea konprobatzea: Sare publikoko urak, erabiltzailearen iturri propioak eta bestelako iturriak.
- Isurketa baimenak efluentea kontrolatzeko ezarri instalazio eta tresnen funtzionamendua konprobatzea (emari-neurgailuak, ph-neurgailuak, termometroak, eta abar)
- Erabiltzaileak isurketa baimenaren arabera ezarritako baldintzak betetzen dituen ala ez begiratzea..
- Ur hondakinak isurtzeko erregelamendu honek ezartzen dituen bestelako baldintzak betetzen diren ala ez konprobatzea.

### **11.3 Agirian jasota geratzeko beharra.**

Burutzen den ikuskaritza edo zaintza edozein lan-ekintza agiri batean jasota geratu beharko da. Agiri horretan egindako lana, data, ordua eta erabiltzaile zein ikuskatzaileak adierazi nahi dutena ere jasoko da. Halaber biek, erabiltzaile zein ikuskatzaileak, sinatu beharko dute.

Agiriaren kopia bat erabiltzailearentzat izango da eta beste bat ikuskaritza edo zaintza lana burutu duen instituzioarentzat, hots; Udal edo Busturialdeko Ur Partzuergoarentzat.

Erabiltzaileak bisitaren ondorioz sortzen den bestelako dokumentazioa jasoko du ere.

## XII. ARTIKULUA: AUTO-KONTROLA

C eta D taldeetako erabiltzaileek isurketa kontrol propioak, auto-kontrol sistemak, ezarri ditzakete.

Auto-kontrol sistema hau martxan ezarri nahi duen erabiltzaileak Busturialdeko Ur Partzuergoari jakinarazi eta honen onarpena behari zango du, eta honek onartzekotan, Auto-kontrol sistema hori isurketa baimenaren parte izango da.

Auto-kontrol sistema horren bidez jasotako datuak Erregistro liburu batean idatziko dira isurketari buruzko bestelako gorabeherekin batera. Inspekzioa egiteko aukera kaltetu gabe, datu hauek guztiak aldika eta alde zurretik ezarritako epeak jarraituz, Busturialdeko Ur Partzuergoari helaraziko zaizkio eta egokitzat joz gero konprobatu ahal izango dira.

Erabiltzaile batek duen auto-kontrol programa baten emaitzek kutsadura zama azterketan eragina izango dute berehala..

## XIII. LAGINAK

### 13.1 Laginak hartzeko eragiketak

Lagin batean adierazkortasun zein eragina izan dezaketen aspektu guztiak kontuan hartuko dira laginak hartzean.

Laginak leku zehatz batean hartuko dira, erabiltzaile baten hondakin urak gainontzeko erabiltzaileen hondakin urekin nahastu baino lehenago.

C eta D taldeetako erabiltzaileei laginak hartzeko lekua VI. Artikuluak xedatzen dituen kontrol instalazioak izango dira. Hala ere, egokitzat joz gero erabiltzaile baten isurketa laginak har daitezke banan-banan, kontrol-instalazioetan erabiltzaile beraren beste isurketa batzuekin nahastu baino lehen. Erabiltzaile hauen kasuetan, kontrol instalazioek VI. artikulua a) eta b) atalen xehetasunak bete beharko dituzte, eta Isurketa baimenean azalduko dira.

### 13.2 Laginen bilketa eta zaintza

Lagina ondokoa da: Isurketa batean hartzen den apur adierazgarria, bere ezaugarriak aztertuz osotasunari dagozkion emaitzak lortzea ahalbidetzen duena.

Laginak hartzeko erregelamendu honek xedatzen dituen arauak jarraitu beharko dira, eta baita ere behar bezala tratatzeko Busturialdeko Ur Partzuergoak etorkizunean ezarri ditzakeen bestelako xedapenak..

<b>LAGINAK HARTZEKO ETA ZAINTEKO ARAUAK</b>			
<b>Zehaztu beharrekoa</b>	<b>Ontzia</b>	<b>Gutxien eko tamaina</b>	<b>Biltze eta zaintza baldintzak</b>
AZIDOTASUNA	P edo B	100	24 ordu.. hotzean
ALKALINOTASUNA	P edo B	200	24 ordu.. hotzean
DBO	P edo B	1.000	6 ordu.. hotzean
DQO	P edo B	100	berehala aztertu: SO <sub>4</sub> H <sub>2</sub> gehitu pH 2-ra arte
KOLOREA	B	500	-----
ZIANUROAK	P edo B	500	24 ordu.. NaOH gehitu pH 12-ra. hotzean
FLUORUROAK	P	300	-----

<b>LAGINAK HARTZEKO ETA ZAINTEKO ARAUAK</b>			
<b>Zehaztu beharrekoa</b>	<b>Ontzia</b>	<b>Gutxien eko tamaina</b>	<b>Biltze eta zaintza baldintzak</b>
OLIO ETA KOIPEAK	B (aho zabala)	1.000	CIH gehitu pH 2-ra arte
METALAK	P edo B	---	Metal disolbatuen kasuetan berehala iragazi, NO <sub>3</sub> HC/l-ko 5ml gehitzea
AMONIAKOA	P edo B	500	Berehala aztertu, SO <sub>4</sub> HC/l-ko 0,5ml gehitu eta hoztu.
NITRATOA	P edo B	100	Berehala aztertu, SO <sub>4</sub> HC/l-ko 0,5ml gehitu eta hoztu
NITRITOAK	P edo B	100	Berehala aztertu, Cl <sub>2</sub> Hg/l -ko 0,5ml gehitu eta hoztu edo 20ºzero azpitik izoztu.
OXÍGENO DISOLBATUA	Winkler ontzia	300	Berehala aztertu.
Ph	P edo B	---	-----
FENOLAK	B	500	24 ordu.. PO <sub>4</sub> H <sub>3</sub> gehitu pH 4.0-ra eta 1 g. 904Cu. 5H <sub>2</sub> O/l.. Hoztu
FOSFATOA	B (1)	100	40 mg. Cl Hg/l 40mg gehitu eta/edo 10º zero azpitik izoztu.
SOLIDOAK	P edo B (2)	---	-----
SULFATOAK	P edo B	---	hoztu
SULFUROAK	P edo B	100	Zink azetato lau tanta gehitu 2N/10 ml.
TEMPERATURA	---	---	Berehala aztertu
P:       plastikoa B:       Beira (1):     NO <sub>3</sub> H 1 – 1-etan pasatu (2):     borosilicatoa (3):     disolbagarri organikoetan pasatu.			

Laginak hartzeko erabiltzailearen ordezkari bat aurrean egon beharko da. Erabiltzaileak bertan egon nahi ez badu, edo bertan egoteari uko egiten badio horrela adieraziko da egin beharreko akta-agirian.

Lagin bat hartzen denean lagina bi zatitan bananduko da, zati bat udal edo Busturialdeko Ur Partzuergoaren esku geratuko da eta bestea erabiltzailearen esku geratuko da.

Erregelamendu honen ondorioetarako erabiltzaile batek lagin baten emaitzak kontrastatu nahi izanez gero dagokion instituzioari jakinaraziko dio - Busturialdeko Ur Partzuergoari edo udalari- lagina batera hartu ahal izateko eta lehen esan den moduan prozesatzeko, bi zatitan bananduz.

Busturialdeko Ur Partzuergoa edo udala eta erabiltzailea ados egonez gero, laginari egin beharreko analisisa laborategi ofizial eta berezi bati -edo Busturialdeko Ur Partzuergoak homologatutako laborategi bati- egitea eskatu ahal diote.

Lagina hartu eta analisi bitartean ahalik eta denbora gutxien igaro beharko da, eta PH, temperatura eta gas disolbatuen xehetasunak lagina hartzean egin behar dira.

Ondoko taulan laginaren biltze eta zaintze baldintzak agertzen dira.

#### **XIV. ARTIKULUA. ANALISIA**

##### **14.1 Analisi metodoak**

Erregelamendu honen ondorioetarako Hiri eta industria hondakin uren analisiak egiteko American Public Health Association (APHA), American Water Works Association (AWWA) eta Water Pollution Control Federation (WPCF) elkarteek argitaratu "Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater" metodoak erabiliko dira. Amoniaikoaren oldarkortasuna eta kutsadura parametroak salbuespenak izango dira eta horiek neurtzeko DIN 4030 eta ISO 6341 arauak erabiliko dira hurrenez hurren.. Analisi metodoak denboraz martxan jarriko diren metodo berriei eta berrikuntzei egokituko zaizkie.

Kasuz kasu erabili beharreko metodoa hondakin uren interferentziak, zehaztasuna maila, emaitza lortzeko igaro beharreko denbora, baliabide berezien beharra eta horrelako parametroen arabera aukeratu da..

Aldez aurretik erabiltzaileari jakinaraziz gero, kasu berezi batzuetan ere, bestelako metodoak erabil daitezke.

## **14.2 Kalitate kontrola**

Busturialdeko Ur Partzuergoak edo Udalak homologatutako laborategiak egin dituen analisi emaitzen kalitatea bermatu behar dutenez, analisi laborategiarekin kalitate kontrol sistema adostuko da.

Noizbehinka ere, Busturialdeko Ur Partzuergoak edo Udalak kalitate kanpo-kontrola egin dezakete beste laborategi baten bidez. Horretarako, Laborategi biek , homologatuak eta kanpokoak, erreferentziazko lagin batzuk analizatu eta lortutako emaitzak konparatzen dira.

## **XV.ARTIKULUA. ANALISIETAN LORTUTAKO EMAITZEKIN EZ ADOSTASUNA**

### **15.1 Orokorra**

Busturialdeko Ur Partzuergoak edo Udalak analisisetan lortu emaitzekin Erabiltzailea ados egon ezean, ondokoa egingo da:

- Busturialdeko Ur Partzuergoak edo Udalak egin beharreko lagin mota eta era zehaztuko dute. Halaber zehaztu beharreko parametroak adieraziko dituzte.
- Busturialdeko Ur Partzuergoak homologatu laborategiak egin beharreko analisi zehaztasunak egingo ditu.
- Erabiltzailearen ordezkariak egiaztatze-laginak hartzeko egiten diren eragiketa guztietan egon daitezke. Bertan akta agiria idatziko da, alde bakoitzak egokitzen jotzen dituen adierazpenak jasoz..
- Egiaztatze laginak hartu eta ez adostasuna mantenduko balitz lagin formal bat egingo da.
- Jatorrizko laginaren emaitzak eta egiaztatze-lagin berrien emaitzak antzekoak izanez gero edo horien arteko ezberdintasuna %20a edo txikiagoa izango balitz erabiltzaileak ordaindu beharko ditu lagin berrien kostea.

### **15.2 Lagin formal**

Busturialdeko Ur Partzuergo edo Udalaren langileak laginak hartuko dituzte erabiltzailearen ordezkariak bertan egonik.

Lagina hartu baino lehen industria prozesuak normaltasunez eta ohiko eran funtzionatzen duela egiaztatuko da.

Laginak eta gainontzeko egiaztatze lanak burutzen direnean notarioa egongo da, eta akta agiria idatziko du.

Busturialdeko Ur Partzuergo edo Udalak izendatu Laborategi ofizial eta berezi batek laginen analisi egingo du erregelamendu honek xedatzen dituen analisi teknikak erabiliz.

Analisi hauen emaitzak lotesleak dira, bai Busturialdeko Ur Partzuergoarentzat edo Udalarentzat zein erabiltzailearentzat ere.

## **XVI.ARTIKULUA. KUTSADURA ZAMAREN ZEHAZTATZE PROZEDURA.**

Isurketa batek duen kutsadura zama zehazteko neurketa zuzena egingo da.

### **16.1 Neurketa zuzena**

Isurketa batek duen kutsadura zama zehazteko asmoz burutuko den neurketa zuzena ondoko urratsak beteko ditu:

1.- Informazio bilketa

1.1.- Ezaugarriak zehazteko plana.

1.2.- analisi eta laginen bidez ezaugarriak bereiztea

2.- Jasotako datuak azterturik kutsadura zama zehazten duen txostena egitea.

### **16.2 Kutsadura zama osoaren neurketa**

#### **16.2.1 Bolumena**

Ondoko kontzeptuak zenbatu edo neurtuko dira:

• Ur Horniketako Sare Publikoak hornitzen duen ur bolumena.

• Baliabide edo iturri propiotik datorren ur bolumena kontagailuaz neurtua. (azaleko ur-hartzeak, iturria, emakidak, putzuak, eta abar).

• Drainatze-azalean urteko 700mm prezipitazioa kontuan hartuz eta isurketa koefizientea aplikatu eta gero, lortzen den euri-uren bolumena.

• Euri uren bolumena kontuan hartuko da, beste lekuren batera desbidera zitekeen arren, Estolda Sare Publikoan isurtzen denean.

• Halaber, euri urak beste lekuren batera ezin desbideratu eta gainontzeko hondakin urekin batera isurtzen denean ere, kontuan hartuko da euri uren bolumena.

• Ur galduaren bolumena edo produktuan sartutako ur bolumena.

• Ur isurketaren bolumena.

Ur Horniketako Sare Publikotik datozen ur bolumenak eta lekuz lekuko kontsumoak zehazteko erabiltzaileak behar diren neurgailu guztiak ezarri beharko ditu.

A taldeko erabiltzaileentzat ur isurketaren bolumena eta hornitutako ur bolumena berdinak direla jotzen da. Halaber, kontrakoa frogatu ezean D taldeko erabiltzaileentzat irizpide hori jarraituko da.

#### **16.2.2 Kutsadura zama osoa**

a) A eta B taldeetako erabiltzaileak.

Erabiltzaile hauen kasuan, kutsadura zama kalkulatzeko horniketa bolumenei ondoko kontzentrazioak aplikatuko zaizkie:

*D.B.O.* 305 mg/l. (61 gr./ pertsona. / eguna)

*D.Q.O.* 500 mg/l. (D.B.O./D.Q.O. - 0,61)

*D.Q.O. sedimentu ezina* 350 mg/l

*S.S. guztira* 450 mg/l. (90 gr. / pertsona. /eguna)

*S.S. Sedimentagarria* 292 mg/l.

*Konposatu nitrogenatuak (NTK)* 58 mg/l.

*Materia inhibitzaileak (Toxikotasuna)* 0 equitox/I.

b) C eta D taldeetako erabiltzaileak.

Erabiltzaile hauen kasuan, ondokoa kontuan hartuko da:

- 16.1 atalak xedatzen dituen prozeduren ondorioz zehaztu den hondakin uren kutsadura zama.
- Komunitako uren kutsadura zama kalkulatzeko lanpostu bakoitzak eguneko 60 litroko kontsumoari aurreko atalean definitu kontzentrazioak aplikatuko zaizkio.
- Kontrolpean egon arren, printzipioz, euri urek kutsadura ez dutela jotzen da. Hala ere, erabiltzaileak aintzat hartzeko kutsadura haina ez dagoela bermatzeko neurriak kontuan hartuko ditu.

### **16.3 Kutsadura zama eguneratzeko prozesuak**

Busturialdeko Ur Partzuergoak edo Udalak erabiltzaile baten isurketaren ezaugarriak definitu eta bereiztu ondoren isurketaren gaineko aldikako kontrol sistema jarriko dute martxan, ondoko bi helburu lortzeko asmoz:

- Isurketa baimenean xedatzen diren isurketa baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.
- Kutsadura zamaren balioak eta datuak jasotzeko.

Kutsadura zamaren balioak sei hilabetetik hilabetera eguneratuko dira, sei hilabete horietan lortutako emaitzen batez bestea aplikatuz.

Busturialdeko Ur Partzuergoak edo Udalak emaitzen segida batean datu bitxiren bat dagoela ustekotan datu hori ez da kontuan hartuko kalkulua egiteko, eta ordezko lagin bat egin zitekeen ere.

### **XVII. ARTIKULUA. BIZTANLERIA BALIOKIDEAREN KALKULUA**

Etxebizitza baten isurketa tipoa oinarritzat hartuz eta biztanle bakoitzari ondoko balioak aplikatuz kalkulatu da Biztanleria baliokidea.

**MO = Materia oxidagarria = 0,1 kg/eguna DQO-n**

**ME = Materia esekia = 0,09 kg/eguna SST-n**  
**S**

**CN = Konposatu = 0,0115 kg/eguna N-NTK-n**  
**nitrogenatuak**

**MI = Materia inhibitzailea = 0,00equitox/eguna/Toxikotasuna**

Zama hauen arabera ondoko ekuazioak erreferentzia balorea zehazten du:

$$R = 0,1 + 0,09 + 0,0115 = 0,2015$$

Industria isurketa zehazteko aurrean erabilitako parametro berberak erabiliko dira (Kg/egunean) eta biztanleria baliokidea “m” ondoko ekuazioaren bidez kalkulatu da:

$$m = \frac{MO(kg / día) + MES(kg / día) + CN(kg / día) + 10xMI(Jequitox / día)}{0,2015}$$



### **XVIII. ARTIKULUA. ISURKETA BAIMENA**

Erregelamendu honen arabera hondakin urak estolda sare publikotik bideratu eta isurtzeko, zein araztegietan isurtzeko, baimena behar da. Kasu bakoitzean ahalmena duen instituzioak eman behar du baimen hori, batzuetan udalak eta beste batzuetan Busturialdeko Ur Partzuergoak. Baimen honen helburua bikoitza da, batetik isurketa ezarritako baldintzetan egiten dela egiaztatzea, eta beste batetik, hondakin uren osaketa eta ezaugarriak ezarritako muga barruan mantentzen dela egiaztatzea. Isurtzeko baimen honi isurketa baimena deitu dugu.

Erregelamendu honen IV eta IX artikuluek xedatzen dutenarekin bat eginez, Estolda Sare publikotik kanpo bideratzen diren hondakin urak ohiz kanpoko baliabidez edo prozeduraz erabiltzen isuri ahal izateko Isurketa Dispentsa eskatu beharko da..

### **XIX. ARTIKULUA ISURKETA BAIMENAREN EZAUGARRIAK**

Isurketa baimenak erabiltzaileak sortarazten dituen hondakin urak estolda sare publikotik bideratzeko eta isurtzeko baimena xedatzen du eta era berean isurketa horrek bete behar dituen baldintzak ezartzen ditu ere.

Isurketa baimenak izaera autonomoa du, eta edozein industria zein merkataritza jarduera martxan jartzeko behar den udal lizentzian barruan egon beharko da. Horrela, Isurketa baimena behinik behin edo behin betiko balio gabe geratuko balitz jarduera lizentzia berak ere balio gabe geratuko litzateke, eta beraz jarduera amaitutzat jo beharko litzateke ere..

## **XX. ARTIKULUA. SAILKAPENA ETA TRAMITAZIOA**

### **A. Isurketa baimenarena.**

Isurketa baimena eskuratzeko ondoko tramitazioa bete beharko da.

#### **20.1 Etxeko erabiltzaileak. A taldeko erabiltzaileak.**

Isurketa baimena lehenengo erabilerako udal lizentziarekin batera ematen dela kontsideratzen da.

#### **20.2 Etxeko ez diren erabiltzaileak**

20.2.1 atalean xedatutakoa izan ezik, etxeko ez diren erabiltzaileek kolektorean isurtzeko baimena lortu beharko dute udal jarduera-lizentziaren tramitazioa burutu baino lehenago.

Udal Jarduera lizentzia eskuratu ahal izateko erabiltzaileak kolektorean isurtzeko baimena aurkeztu beharko izango du.

Isurtzeko baimena Busturialdeko Ur Partzuergoari eskatuko zaio.

Eskaria jaso eta 10 eguneko epean isurtzeko baimen eskarian emandako informazioak erabiltzaile berari dagokion taldean sailkatuko da.

Busturialdeko Ur Partzuergoak egingo du sailkapena.

#### **20.2.1 B taldeko erabiltzaileak**

Isurketa baimena udal jarduera-lizentziarekin batera ematen dela kontsideratzen da.

Hala ere, aipatu lizentzia eman baino lehenago udalak hainbat informazio helarazi beharko dizkio Busturialdeko Ur Partzuergoari : Besteak beste, estolda sare pribatua eta sare publikoaren arteko lotuneari buruzko proiektu teknikoa, garatuko den jardueraren xehetasunak eta hondakin uren gainean izango duen eragina, eta baita ere B taldeko erabiltzaile moduan kontsideratzeko erabili diren zioak.

Dokumentazio hori guztia jaso eta 8 laneguneko epean Busturialdeko Ur Partzuergoak udalak egindako sailkapena berretsiko du. 8 laneguneko epea kontatzen hasteko jasotze ziurtagiria egingo da. Orduan, sailkapena egokia izanez gero, udalak lizentzia emango luke. Berriz, Partzuergoak erabiltzaileari egokitu behar zaion taldea beste bat dela uztez gero 8 lanegun epe berean sailkapena aldatzeko zioak igorri beharko dizkio udalari, eta horren ondorioz isurketa baimenari dagokion sailkapenaren araberrako tramitazioa emango zaio.

Halaber, behar izanez gero, epe berean Busturialdeko Ur Partzuergoak udal lizentziak izan behar dituen baldintza bereziak adieraziko ditu, edo erabiltzaileak aurkeztu behar duen dokumentazio osagarria eska dezake ere. Dokumentazio osagarria eskatzekotan epe horia gortu gabe geratuko litzateke, eta Busturialdeko Ur Partzuergoak proiektu berria eta osoa jaso ondoren erantzuna emateko aipatu epea berriro hasiko litzateke.

8 laneguneko epea Busturialdeko Ur Partzuergoaren erantzunik gabe igaro ondoren egindako sailkapena ondo dagoela eta isurketa baimena ematen dela jotzen da.

### **20.2.2 C eta D erabiltzaileak**

C eta D erabiltzaileek Busturialdeko Ur Partzuergoari eskatu behar diote isurketa baimena. Eskaria egiteko egokia den inprimakiarekin batera beste hainbat dokumentu aurkeztu beharko da. Besteak beste, jarduerari buruzko galde-sorta erantzun, hondakin uren bolumena eta ezaugarriak, establezimenduaren proiektu teknikoa, Estolda Sare pribatuaren xehetasunak eta erregelamendu honen arabera ezarri beharreko bestelako elementu batzuei buruzko informazioa.

Hondakin urak aldeztatik tratatzeko prozesua martxan jartzea behar izanez gero instalazio horien proiektu teknikoa eta instalazio horrekin lortzen diren emaitzak ere aurkeztu beharko dira. Horrela exijitzen diren baldintzak betetzen direla justifikatuko da.

Udal jarduera-lizentzia tramitatzeko eskariarekin batera erabiltzaileak Busturialdeko Ur Partzuergoaren isurketa baimena aurkeztu beharko du. Isurketa baimena ezinbestekoa da lizentzia tramitatzeko eta beraz, hori egon ezean, ezin izango da tramitatu jarduera lizentzia.

Busturialdeko Ur Partzuergoak bi hilabeteko epean erantzun beharko du isurketa baimenaren eskaria. Hala ere, Partzuergoak datu berriak eskatuz gero bi hilabeteko epe hori eten egingo da.

Isurketa baimena baldintza gabe, edo baldintza zehatz batzuekin eman daiteke. Bestetik, eskaera ukatu egin daiteke ere. Isurketa baimenak erabiltzailearen sailkapena zehaztuko du ere.

Isurketa inolako baldintza gabe ematen denean erabiltzaileak isurketa-eskarian xedatzen dituen baldintzetan isuriko duela jotzen da.

Isurketa baimen batean ezartzen diren baldintza bereziek ezin dute aldatu eskarian agertzen ziren funtsezko xehetasunak. Eskariari egiten zaizkion zuzenketa txikiak baino ezin dira izan.

Baimen ukapena ebazpen arrazoituaren bidez egingo da, eta baimena ukatzeko zioak aipatu beharko dira. Ukapenaren zioak zuzenduz gero baimena emango ahal da.

Baimena ematerakoan hartzen den ebazpena afektatutako udalari jakinaraziko zaio eta honek lizentzian bertan baimen hori erantsiko du lizentziaren baldintza gisa. Ebazpenak baimena ukatuko balu udalak ez luke lizentzia emango.

Isurketa baimena eman eta instalazioak eta sortu hondakin urak emandako baimenari egokitzen zaizkiola konprobatu ondoren Busturialdeko Ur Partzuergoak interesdunari eta afektatutako udalari konprobazio horren berri emango die. Izan ere, Udalak ezin izango du inolako irekitze zein jarduera lizentzia eman konprobazio horren jakinarazpena jaso gabe.

### **B. Isurketa Dispentsa**

Hondakin urak estolda sare publikotik kanpo isurtzeko baimena ematen duen Isurketa dispentsa C eta D taldeetako erabiltzaileei xedatutakoaren arabera tramitatuko da.

## **XXI. ARTIKULUA. ISURKETA BAIMENA ETA ISURKETA DISPENTSA BALIOGABE UZTEA EDO IRAUNGITA GERATZEA.**

1. Busturialdeko Ur Partzuergoak edo bere kasuan Udalak emandako dispentsa bat iraungita geratuko da ondoko kasuetan:
  - a) Urtebete baino gehiago isuri gabe egon ondoren.
  - b) Hondakin urak sortzen dituen industria edo merkataritza jardueraren udal lizentzia baliogabe geratzen denean, ezeztatzen denean edo iraungita geratzen denean.

2. Partzuergoak edo Udalak, edozein kasutan baimena edo dispentsa eman duen instituzio berak, baliogabe utziko du baimena edo dispentsa ondoko kasuetan:
    - a) Erabiltzaileak isurtzen dituen hondakin uren ezaugarriek erregelamendu honek xedatzen dituen mugak eta debekuak edo isurketa baimenean ezarritako baldintzak bete ezean eta egindako errekerimenduei erantzun egokia eman ez den kasuetan.
    - b) Isurketa baimenean edo erregelamendu honetan ezarritako bestelako baldintzak edo beharrak ez betetzeagatik, eta horrela kontsideratzen bada erabiltzaileak behin eta berriro baldintzak betetzeari uko egiten dionean edo ez betetze hori larria denean.
  3. Dispentsa edo Isurketa baimena baliogabetzeko ebazpena kontradikzioko espediente baten bidez adieraziko da eta Estolda Sare Publikoan isurtzeko debekua ezartzeaz gain udalari edo Busturialdeko Partzuergoari, bakoitzari bere kasuan, aipatu sarean edo sare pribatuan ere, isurketak saihesteko asmoz egin ahal diren obrak edo lanak burutzeko ahalmena ematen dio.
  4. Aurreko ataletan aurreikusitako baliogabetze zioek edo iraungitzat jotzeko arrazoiak egonez gero hondakin urak sortzen dituen jarduera itxi beharko da.
- 3.7 BETEBEHARRAK, ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

## **XXII. ARTIKULUA. ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK**

Erabiltzaileek isurketa baimenak xedatzen dituen baldintzetan isuri beharko dute eta horrez gain ondokoa ere bete behar dute:

- 1.- Titulartasunean egon daitezke eskualdaketak udalari eta Busturialdeko Ur Partzuergoari jakinaraztea isurketa baimena titular egokiaren izenean egon dadin.
- 2.- Etxebizitzetako kasuetan izan ezik, industria prozesuan edo merkataritza jardueran egindako aldaketaren baten ondorioz isurketaren bolumenean edo isurketaren elementu kutsagarrietan %10a baino gehiagoko aldaketa eraginez gero Udalari eta Busturialdeko Ur Partzuergoari jakinarazi beharko zaie.
- 3.- Aurreko ataletan zehazten den portzentaia gainditzen duen bestelako aldaketa kualitatibo zein kuantitatibo baten ondorioz Isurketa baimen berria eskatu beharko da.

Aurrean aipatu betebeharrak betearazteko errekerimenduak Busturialdeko Ur Partzuergoak egingo ditu oinarritzko sareko erabiltzaileen kasuetan, eta dagokion udalak udal Estolda Sareko erabiltzaileen kasuetan.

Udalak zein Busturialdeko Ur Partzuergoak ofizioz jardungo dute interesatuak errekerimenduan eskatu zuzenketak bete ezean.

## **XXIII. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

1- Arau-hausteak izango dira ondokoak:

- a) Debekupeko isurketak burutzea.
- b) Erregelamendu honek xedatzen dituen baldintzak bete gabe isurtzea, edo beste batzuk izatekotan ere, Isurketa Baimenak ezartzen dituenak bete gabe isurtzea.
- c) Erregelamendu honek aipatzen duen informazioa eman nahi ez izatea edo emateko oztopoak ezartzea.
- d) Ikuskaritza, kontrol eta zaintza lanak oztopatzea.
- e) Isurketa baimenak edo isurketa dispentsak ezarritako baldintzak ez betetzea.
- f) Larritasun edo premiazko egoera ez jakinaraztea.
- g) Titulartasun aldaketak ez jakinaraztea XXI. Artikuluak xedatzen duenari muzin eginez.

- h) Jarduera aldaketak edo isurketa kalitatearen aldaketak ez jakinaraztea XXI. Artikuluak xedatzen duenari muzin eginez.
- i) Orokorrean, erregelamendu honen arauak hautsi egiten dituen beste zerbait egitea.

2- Arau-hausteak izango dira:

- a) Arinak.
  - b, e, g edo i ataletako arau-hausteak, Estolda Sare publikoan, araztegian edo beste hirugarren bati 3000 € baino gutxiagoko kalteak eragin direnean eta araua behin baino ez bada hautsi.
- b) Larria
  - c, d, f eta h atalekoak.
  - b, e eta g atalekoak arau bera haustearren beste zehapenaren bat jaso egin denean.
  - i atalekoak Estolda Sare publikoan, araztegian edo beste hirugarren bati sortutako kalteak 3000€ eta 12000 € bitartean direnean.
  - Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.
- c) Oso larriak
  - a atalekoak.
  - c, d, f, g eta h atalekoak arau bera haustearren beste zehapenaren bat jaso egin denean.
  - i atalekoak Estolda Sare publikoan, araztegian edo beste hirugarren bati sortutako kalteak 12.000€ baino gehiago direnean.
  - Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.

3- Arau-hausteen ondorioz ondoko zehapenak ezarriko dira:

- a) Arau-hauste arinengatik, 6000 eurorainoko isunak.
- b) Arau-hauste larriengatik 6000 eta 60000 euro bitarteko isuna eta isurketa baimena aldi baterako baliogabe uztea.
- c) Arau-hauste oso larriengatik, isurketa baimen abere osotasunean edo zatiren batean, behin betiko balio gabe uztea eta 60.000 eta 600.000 euro bitarteko isuna.

4- Arau-hauste arinak zuzentzeko ezarritako isuna ordaindu beharko da.

Arau-hauste larriak zigortzen dituen baimenaren behin behineko baliogabetze horrek indarrean egongo da zehapenaren zioa mantentzen den bitartean.

Baimenaren behin betiko baliogabetze horrek arau-hauste oso larriak zigortuko ditu.

5- Egindako arau-haustearren ondorioz, Estolda sare Publikoaren osotasun fisikoa kaltetuko balitz, edo sarearen funtzionatze eta mantentze lanak burutzen duten langileen osasuna arriskuan jarriko balitz edo arazteko prozesua kaltetu balitz zehapen espedientearen instrukzio-egileak isurketa geldiarazteko agindua eman beharko luke. Agindu hori bete ezean eta zehapen espedientea ebatzi arte isurketa baimena zuhurtziaz indargabe uztea eta isurketa geldiarazteko egin beharreko lanak burutzea aginduko du.

6- Baimenaren behin behineko zein behin betiko baliogabetzeko zehapenak betearazteko egin behar diren lanak zehaztuko dira. Isurketa geldiaraziko duten lan horiek burutzeko erabiltzaileari epe bat emango zaio. Honek egingo ez balitu Udal sarean egin beharreko lanak Udalak egingo ditu, oinarritzko sarean egin beharrekoak berriz, Busturialdeko Ur Partzuergoak egingo ditu.

7- Zehapen espedienteak Administrazio prozedurako legearen arabera tramitatuko dira eta ezarritako isunak premia-bidetik ordainaraziko dira borondatezko epean ordainduko ez balira.

8- Arau-hauste gertatu den udaleko alkateak espedientea irekitzeko ahalmena du, ofizioz, edo arau-haustea Estolda Sare Publikoari lotuta dagoen kasuetan Busturialdeko

Ur Partzuergoak proposaturik ere. Espedientearen tramitazioa, azken ebazpena eta ezarri beharreko isun ebazpenak, alkateak ebatziko ditu, edonolakoak izanda ere.

9- atal honetan aipatu jardunbidea aparte utzita ere, indarrean dagoen legedia jarraituz, Busturialdeko Ur Partzuergoak espediente irekitzeko eskaera egin ahal die arlo honetan eskuduntza duten gainontzeko organoei.

10- Egoki diren zehapenak aparte utzita arau-hausleak sortutako kalte eta galerak ordaindu beharko ditu. Zehatze-organoak kalte-galeren ordain kopurua zehaztuko du Busturialdeko Ur Partzuergoaren proposamena edo udalaren proposamena jarraituz, bakoitzak bere kasuan.

11- Erregelamendu honek xedatzen dituen arau-hausteez indarra galduko dute ondoko epeetan:

- Arau-hauste oso larriak bi urtetan.
- Arau-hauste larriak urtebetean.
- Arau-hauste arinak 6 hilabetetan.

### 3.8 EBAZPENAK ETA HELEGITEAK

#### **XXIV. ARTIKULUA. ESKUDUNTZA EDO AHALMENA**

Erregelamendua honen arabera Busturialdeko Ur Partzuergoak hartu behar dituen ebazpenak Exekuzio-Batzordeak ebatziko ditu.

Partzuergo-kide diren udalek hartu behar dituzten ebazpenak Toki Jaurbideari buruzko legeak xedatzen dituen organoek ebatsiko dituzte.

#### **XXV. ARTIKULUA. HELEGITEAK**

Busturialdeko Ur Partzuergoko Exekuzio-Batzordeak hartu ebazpenen aurka gorako helegitea jarri daiteke Kontseilu Nagusiaren aurrean. Kontseilu Nagusiaren ebazpenek administrazio bidea amaitzen dute. Hauen aurka, berraztertze errekurtsua jarri aurretik, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri daiteke. *Las resoluciones adoptadas por la Comisión Ejecutiva del Consorcio de Aguas de Busturialdea, podrán ser recurridas en alzada ante el Consejo General. Las resoluciones del Consejo General agotarán la vía administrativa y contra las mismas procederá el recurso contencioso-administrativo, previo al de reposición.*

*Normalean berraztertze errekurtsua administrazioarekikoa baino lehenago ezartzen da???????*

Partzuergo-kide diren Toki Entitateek hartu ebazpenen aurkako errekurtsuak beraien ohikoak izango dira.

### 3.9 BEHIN BEHINEKO XEDAPENAK

#### **LEHENENGOA**

Gaur eguneko erabiltzaileek Isurketa baimena lortu beharko dute ondoren aipatzen diren epe eta baldintzetan, Estolda Sare pribatuak zein industria nahiz merkataritza prozesuak bertan aipatzen diren baldintzak betetzeko eta erregelamendu honek xedatzen duena bete ahal izateko egokitu beharko dira.

Hala ere, instalazio edo eraiketaren ezaugarriak direla eta, aurreko paragrafoak aipatzen duen egokitze lana ezin bada burutu, ez da exijituko. Baina Busturialdeko Ur Partzuergoak ordezkotako neurriak hartzeko agindua eman zezakeen ere.

#### **BIGARRENA**

A taldeko erabiltzaileen Isurketa baimena isilekoa da.

Seigarren behin behineko xedapenaren edukia kaltetu gabe, A taldeko erabiltzaile edo erabiltzaile komunitate hauei guztiei VI. artikuluko xedatzen duenari egokitzeko errekerimendua egin ahal zaie ondoko gorabeherak gertatu eta egokitze jotzen denean:

- Industria isurketa kutsatu baten ondoan isurtzen dutenean.
- Euri-uren emari handiak drainatzen duten lur-azal handiak daudenean.

- Estolda sare Publikoan eragina izan dezaketen bestelako gorabeherak gertatzen direnean.

#### HIRUGARRENA

B, C eta D taldeetako erabiltzaileek sailkapena eta isurketa baimena eskatu beharko dute erabiltzaile berriek eskatzen duten modu berean..

Eskaera hori, erregelamendu hau indarrean sartu eta hurrengo sei hilabeteko epean egin beharko da. Halaber eskariarekin batera egokiak diren proiektu eta agiriak aurkeztu beharko dira..

Isurketa baimena emateko merkataritza edo industria prozesuak aldatzea, estolda Sare pribatua egokitzea edo hondakin urak aldeztatik tratatzeko instalazioak ezartzea eskatuko balitz, ondoko epeak emango zaizkio erabiltzailerari:

- a) Estolda Sare pribatuan egin beharreko egokitze edo aldatze lan errazak edo zailtasun tekniko gabekoak direnean sei (6) hilabeteko epea.
- b) Horrez gain, industria edo merkataritza prozesuak aldatu behar direla eskatzen denean, hamabi (12) hilabeteko epea.
- c) Hondakin urak aldeztatik tratatzeko prozesuak ezartzea eskatzekotan hogeita lau (24) hilabeteko epea.
- d) Egin beharreko egokitze prozesuen zailtasun teknikoa edo kostea dela eta, egokitzat joz gero, Busturialdeko Ur Partzuergoak, hogeita lau hilabete (24) baino gehiagoko epea eman zezakeen,.

Busturialdeko Ur Partzuergoak isurketaren baimen eskaria epean erantzun ezean baimena onartutzat joko da, egokia den ebazpena hartu bitartean.

#### **INDARGABETZEKO XEDAPENA**

Erregelamendu honetan xedatzen denaren aurka egiten duen Partzuergo-kideen ebazpenak indargabe geratuko dira..

#### **AZKEN XEDAPENA**

Erregelamendu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean indarrean sartuko da.